

# GABRIEL CELAYA

## HOMENAJE / OMENALDIA

ABENDUA 1984 DICIEMBRE
15 - 22

*OHORE eta poz haundia da gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, abenduaren 15-22 bitartean Gabriel Celaya olerkariaren omenez ospatuko diren jardunaldien egitaraua aurkeztu ahal izatea.*

*Jardunaldi hauek ezingo ziren, bestetik, ospatu ahal izango, Celayari mirespena aitortu nahi izan dioten zenbait gipuzkoar idazleren partaidetzarik egon ez balitz. Mirespen eta aitorpen horretan, jardunaldietan parte hartzen duten guztiak bat datozelarik; hau da, idazle, kritikalari, irakasle eta kantari.*

*Gipuzkoak zor zion Gabriel Celayari omenaldi anaikor eta bihozkor hauxe. Bere ibilbide artistiko eta intelektual luzeak, gerlaoste gogorrean nabarmendutako kultur eta politikazko jarrera borrokalariari gehituz, Celaya behar beharrezko erreferentzia biurtu bait du egia, justizia eta anaikortasunaren oinarrien gainean bizitza eraikitzea ezinbesteko dela sinisten duten guztientzat.*

*Guzti horregatik, jardunaldi hauek Celayaren obraren ezagutza sakonago baten atari izan ditezela nahiko nuke, euskaldunen artean zabalkunde hobeago baten tresna bezalaxe.*

*Azkenik, beren partaidetza oso bereziki eskertu nahi nieke, gipuzkoarrak ez izan arren jardunaldi hauetan egoteko galantasuna izan duten guztiei.*

*Kulturako Foru Diputatua*
**IMANOL MURUA ARREGI**

*ES un honor y una gran satisfacción para la Diputación Foral de Guipúzcoa poder presentar el programa a desarrollar, del 15 al 22 de diciembre, como jornadas-homenaje al poeta Gabriel Celaya.*

*Dichas jornadas no hubieran podido, por otra parte, celebrarse, sin la colaboración activa de diversos escritores guipuzcoanos que han querido testimoniar su admiración a Celaya. Admiración y reconocimiento del que participan, a su vez, todos cuantos específicamente protagonizan todas y cada una de las jornadas; es decir, escritores, críticos, profesores y cantantes.*

*Guipúzcoa debía a Gabriel Celaya este fraternal y entrañable homenaje. Su dilatada trayectoria intelectual y artística, unida a su condición de resistente cultural y político en la larga y dura posguerra, han convertido a Celaya en referencia obligada para todos cuantos consideran ineludible cimentar la vida en principios de verdad, justicia y solidaridad.*

*Por todo ello, desearía que estas jornadas sirvieran de preámbulo a una profundización en la obra de Celaya, así como a una mejor difusión de la misma entre los vascos.*

*Quisiera, por fin, agradecer muy particularmente la participación de los conferenciantes no guipuzcoanos que han tenido la gentileza de sumarse a estos actos.*

*Diputado Foral de Cultura*
**IMANOL MURUA ARREGI**

# SARRERA / INTRODUCCION

## GABRIEL ZELAIA, DONOSTIAKO PARTE ZAHARRETIK MUNDUARI SO

«*Poesiak adiskidetasuna sortzen du*»
G. Z.

Foru Diputazioak eraginda Gipuzkoak Gabriel Zelaia gure poetari eskeiniko dion omenaldia, gure kultura, zientzia, ikerkuntza, unibertsitate, arteetako gizon eta emakumeak onesteko urratzen ari den bidean kokatu beharko litzateke; herriak osotasuna emanez bultzatu eta garatzen dituen gainerako guztien lanarekin batera, gizarteak bere burua etorkizunean ikusi eta aurrera egin dezan beren ihardueraz laguntzen duten gizakiak eskertzeko bidean, hain zuzen.

Rafael Mujika, Gabriel Zelaia (Hernani, 1911), kontzientziaren argigarri den hitz edota berba kreatzailean izkutzatzen den, eraiki eta sinisten duen agente argi eta ludikoaren bizi-kondizioa bere bizitzaren une orotan azaldu duen gizakia, poeta da. Bere kreazio poetiko zabalean nahiz teoria poetiko harrigarri eta argian zehar, bere zeinu animikoen nahiz gizakiaren errealitatearekin izan duen topaketa egiatiaren bitartez, izatearen filosofia, bizitzari buruzko idearium bat, galdegitea libre duen bide bat finkatu du, non bere euskaldun izatea beti egon baita presente. Are gehiago: bere literatura esplikagaitza izango litzateke —baldin literatura bere baitan esplikatzen ez bada—, Euskalerriarekin bat egiten duen hari horretatik abiatuz munduan izan duen presentzia agertzen eta baiezten duten konstante herritarrak ulertu gabe. Poeta abangoardian egon da uneoro. Poesia esperimentalean, poesia sozialean, poesia konkretuan eta berak poesia orfikoa izendatutakoan, gizakiak unibertsoan duen dimentsioa, izatearen eta kezkaren arteko gizakia izan da Zelaiaren poesiaren objetoa; gizakia,

## GABRIEL CELAYA, DESDE LA PARTE VIEJA DONOSTIARRA, MIRANDO AL MUNDO

«*La poesía crea amistad*»
G. C.

El Homenaje que, promovido por la Diputación Foral, va a tributar Guipúzcoa a nuestro poeta Gabriel Celaya habría que situarlo en una línea de reconocimiento a los hombres y mujeres de nuestra cultura, de la ciencia, de la investigación, de la universidad, de las artes, aquellas personas con cuya actividad, unida a las demás que el pueblo globalmente empuja y desarrolla, han contribuido para que la sociedad siga mirándose en el futuro, prospere.

Rafael Múgica, Gabriel Celaya (Hernani, 1911) es el hombre, es el poeta que en todos los momentos de la vida ha mostrado su condición vital de agente lúcido y lúdico que cree, que construye, que se esconde en la palabra, en el verbo creativo, como iluminador de la conciencia. A lo largo de su dilatada creación poética, de su portentosa y clarividente teoría poética, de sus gestos anímicos, desde su juglar y sincero encuentro con la realidad del hombre, ha ido consolidando toda una filosofía de la existencia, un ideario vital, un camino abierto a la interrogación, donde siempre ha estado presente su condición de vasco. Pero hay algo más: su literatura sería difícilmente explicable—si es que la literatura no se explica en sí misma—sin entender las constantes populares que presentan y afirman su presencia en el mundo, a partir de ese hilo conductor que le une a Euskalerría. El poeta ha estado en todo momento en la vanguardia. Desde la poesía experimental, la poesía social, la poesía concreta, hasta la por él calificada poesía órfica, el hombre, la dimensión del hombre en el universo, entre

poesia eta egia. Bere olerkiak, eta baita kritikako edo teoria poetikoko testuak ere, izateaz, existentziaz duen ikuspegi globalaren adierazgarri argiak dira.

Ezagupen osoan, izate osoan burubelarri murgildutako gizona, hortxe jaio zen, Hernanin, eta laster eman zion kultur ekintzari, beharbada askatasuna bakardadean ulertzea itxura egitea besterik ez zelako sinesmenak bultzaturik. Donostiako Alde Zaharretik —Juan de Bilbaoko, 4, 3.ean antolatutako txoko txiki batean frankismoaren tunelean leiho bat mundura zabalik euki zuten Gabriel Zelaiak eta Anparitxu Gastonek, zeina 1946ko Urriaren zortzian, «egun garrantzitsua neretzat», ezagutu baitzuen.

Biok egin zuten «Norte» poesi bildumak Rimbaud, Rilke, Eluard, Blake, Lanza del Vasto, Sereni, Mario Luci eta beste batzuen zenbait testu eman zizkiguten ezagutzera, tartean Leopoldo de Luis, Ricardo Molina, Victoriano Crémer, Bleiberg, Cela, Labordeta eta beste zenbait espainiarrenak. Honela, poetak barruko exilioari egiten dio aurre, Paul Ilie-n ustetan—kulturak jazarria izanda eta ihesian egokitu beharra izan zuenez—atzerrikoa bezain larria izan zen «barne-atzerriratzeari». Gabriel Zelaiak beti aldarrikatu du bere euskaldun izatea, «Rapsodia euskara» eta «Baladas y decires vascos» ikusi besterik ez dago. Idatzi duenez, bi liburuok bere sentipen sakonenetik sortuak dira. Hor dago, bitartean, bere obra osoa, José María Valverdek «aberastasuna, orijinaltasuna, asmamena eta azentuaren baitako grazia pertsonala» deituko lukeenaz ikutua.

**Félix MARAÑA**

la existencia y la zozobra, ha sido el objeto de su poesía; el hombre, la poesía y la verdad. Su poesía, como sus textos críticos o de teoría poética, son buena muestra de su concepción global de la existencia.

El hombre, volcado en el conocimiento total, en la total existencia, nació ahí, en Hernani, y, posiblemente obligado por la creencia de que concebir la libertad en soledad es una falacia, pronto se dio a la acción cultural. Desde la Parte Vieja de San Sebastián—en un pequeño rincón montado en la calle de Juan de Bilbao, 4, 3.º—, Gabriel Celaya y Amparitxu Gastón, a quien conoce en un 8 de octubre de 1946, «fecha importante para mí», mantuvieron en el túnel del franquismo una ventana abierta al mundo.

La colección «Norte» de poesía por ellos realizada nos dio a conocer textos de Rimbaud, de Rilke, Eluard, Blake, Lanza del Vasto, Sereni, Mario Luzi y otros, entre los que estaban los españoles Leopoldo de Luis, Ricardo Molina, Victoriano Crémer, Bleiberg, Cela, Labordeta, etc. De este modo el poeta se enfrenta al exilio interior, no menos problemático, según Paul Ilie, que lo fue en el exterior, donde la cultura buscó acomodo, perseguida y errante. En todo momento Gabriel Celaya ha predicado —basta asomarse a «Rapsodia euskara» o «Baladas y decires vascos»—su condición de vasco. Ambos libros nacieron de su más profundo sentir, según tiene escrito. Ahí está entretanto el conjunto de su obra, tocada por lo que José María Valverde llamaría riqueza, originalidad, invención y gracia personal en el acento.

**Félix MARAÑA**

# EGITARAUA / PROGRAMA

## ABENDUAK 15 DICIEMBRE

# JOSE HIERRO

*«IDEAS POETICAS DE GABRIEL CELAYA»*

**José Hierro.** Poeta. Letretako «Príncipe Asturias» Saria. 1947an argitara eman zituen bere bi lehen poesi liburu, «Tierra sin nosotros» eta «Alegría». Gerrateondoko lehen olerkari-promozioaren eta 1936 ondorengo olerkarien arteko zubitzat hartua izan da. Bere poema-liburu ugarien artean «Con las piedras, con el viento» (1950), «Quinta del 42» (1953), «Estatuas yacentes» (1955), «Cuanto sé de mí» (1957), «Libro de las alucinaciones» (bere liburutik garrantzitsunetako bat, 1964) eta «Poemas de agenda» (1980). Azken poema hauek «VISOR» argitaletxeak argitaratutako «Antologia»n barne daude (Madrid, 1980), eta Antologia horretan Aurora de Albornoz-ek idatzitako Jose Hierrori buruzko ikerlana ere azaltzen da.

**Tokia:**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JARGI-ARETOAN

**Ordua:** 19,30etan

**José Hierro.** Poeta. Premio «Príncipe de Asturias» de las Letras. En 1947 publicó sus dos primeros libros de poemas, «Tierra sin nosotros» y «Alegría». Ha sido considerado como un *poeta-puente* entre la primera promoción poética de postguerra y los poetas posteriores a 1936. Entre sus numerosos libros de poemas publicados destacan «Con las piedras, con el viento» (1950), «Quinta del 42» (1953), «Estatuas yacentes» (1955), «Cuanto sé de mí» (1957), «Libro de las alucinaciones» (uno de sus libros más importantes, 1964) y «Poemas de agenda» (1980). Estos últimos poemas fueron incluidos en la «Antología» editada por «VISOR» (Madrid, 1980), en la que aparece un estudio sobre José Hierro escrito por Aurora de Albornoz.

Muchos de sus poemas fueron publicados en las revistas «Garcilaso», «Corcel» y «Proel». Con su libro «Alegría» mereció el premio «Adonais».

**Lugar:**

SALON DEL TRONO DE LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

**Hora:** 19,30

ABENDUAK 17 DICIEMBRE

# LEOPOLDO DE LUIS

## *«GABRIEL CELAYA, ENTRE LA CONCIENCIA MAGICA Y LA CONVIVENCIA COLECTIVA»*

**Leopoldo de Luis.** Poeta y crítico literario. Premio Nacional de Literatura. Autor de numerosos libros de poesía y ensayo, entre ellos de una «*Antología de la Poesía Social Española Contemporánea*». Es autor así mismo de otros libros sobre poetas como León Felipe, Antonio Machado, Vicente Aleixandre y Miguel Hernández. Es también conocido como conferenciante y colaborador de periódicos y revistas. De entre sus libros de poesía, que comienzan a editarse en 1949 («Los imposibles pájaros»), y sigue con «Elegía de Otoño» (1952) o «Juego limpio» (1961), destacan por singular lirismo «La luz a nuestro lado» (1964), «Correo español» (1966), «Con los cinco sentidos» (1970), «Reformatorio de adultos» (1975) e «Igual que guantes grises» (1979).

**Tokia:**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JARGI-ARETOAN

**Ordua:** 19,30etan

**Leopoldo de Luis.** Poeta eta literatur kritikoa. Literatur sari nazionala. Poesia eta saiakerako liburu ugariren egilea, horien artean «*Antología de la Poesía Social Española Contemporánea*» liburuaren egilea. Poeta batzuri buruzko liburuak ere idatzi ditu, hala nola León Felipe, Antonio Machado, Vicente Aleixandre eta Miguel Hernández poetei buruzkoak. Hizlari eta egunkari eta aldizkarietako kolaboratzaile gisa ere ezaguna da. Bere poesi liburuen artean ondoko hauek aipatu behar dira: «Los imposibles pájaros» (1949), «Elegía de Otoño» (1952), «Juego limpio» (1961) eta lirismo paregabez nabarmentzen diren beste hauek: «La luz a nuestro lado» (1964), «Correo español» (1966), «Con los cinco sentidos» (1970), «Reformatorio de adultos» (1975) eta «Igual que guantes grises» (1979).

**Lugar:**

SALON DEL TRONO DE LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

**Hora:** 19,30

## ABENDUAK 18 DICIEMBRE

# JESUS MARIA LASAGABASTER

*«LA PROSA NARRATIVA DE GABRIEL CELAYA»*

# JOSE ANGEL ASCUNCE

*«LA SIMBOLOGIA DE LA POESIA SOCIAL»*

**Jesús María Lasagabáster.** Filologia Erromanikoko Doktorea, Literatura eta Literatur Kritikako Katedraduna Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campus-eko Filosofia eta Letretako Fakultatean (F. Hispaniko eta Euskal Filologiaren Sailetan). Literatur kritikaren korronte berrien alorra landu du batez ere, eta baita nobela espainiar eta euskaldun garaikiderako berorien aplikazioa ere. Espainiako teatro klasikoan aditu haundienetakoa da eta, horrela, Almagroko teatro-ihardunaldietan eskuhartu du. Argitara eman dituen obren artean honako hauek nabarmenerazi daitezke: «La novela de Ignacio Aldecoa», «La crítica semiológica en España», «Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinarriak», «Nobelaren joera berriak», e.a.

**Jose Angel Askunze Arrieta.** Filologia Erromanikoko Doktorea Madrilgo Unibertsitatetik. Literaturako Irakasle Arduraduna eta Filosofia eta Letretako Dekanoa Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean. Bi sail nagusitan egin ditu bere azterlan eta ikerketak: Barrokoko Literaturan eta XX. Mendeko Poesigintzan, poesia sozialari arreta berezia eskeini diolarik. Argitaratu dituen tituluetan hauexek dira nabarmenenak: «Razón y sinrazón de la poesía social. Un intento de definición», «Estructuras biblio-proféticas en la poesía social», «El personaje en la poesía social. León Felipe por ejemplo». Bere «La cosmovisión poética de León Felipe» liburua prentsan sartuta dago oraintsu.

**Tokia:**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JARGI-ARETOAN

**Ordua:** 19,30etan

**Jesús María Lasagabáster.** Doctor en Filosofía Románica, catedrático de Literatura y Crítica Literaria en la Facultad de Filosofía y Letras—Secciones de Filología Hispánica y Vasca—de la Universidad de Deusto (Campus de San Sebastián). Se ha dedicado preferentemente a las nuevas corrientes de la crítica literaria y a su aplicación a la novela contemporánea, española y vasca. Es uno de los grandes especialistas del teatro clásico español, en calidad de lo cual ha participado en las jornadas de teatro de Almagro. Entre sus publicaciones cabe destacar: «La novela de Ignacio Aldecoa», «La crítica semiológica en España», «Euskal nobelaren gizarte kondairaren oinarriak», «Nobelaren joera berriak», etc.

**José Angel Ascunce Arrieta.** Doctor en Filología Románica por la Universidad Autónoma de Madrid. Profesor Titular de Literatura y Decano de la Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad de Deusto (Campus de San Sebastián). Su campo de estudio e investigación abarca dos grandes parcelas: la Literatura del Barroco y la Poesía del Siglo XX, concediendo especial atención a la poesía social. Entre los títulos publicados destacan: «Razón y sinrazón de la poesía social. Un intento de definición», «Estructuras biblio-proféticas en la poesía social», «El personaje en la poesía social. León Felipe por ejemplo». Su libro «La cosmovisión poética de León Felipe» está en prensa en estos momentos.

**Lugar:**

SALON DEL TRONO DE LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

**Hora:** 19,30

ABENDUAK 19 DICIEMBRE

# BERNARDO ATXAGA

*«PROXIMIDAD DE GABRIEL CELAYA»*

# CARLOS AURTENETXE

*«LA POESIA ORFICA»*

# FELIX MARAÑA

*«EL EXILIO INTERIOR DEL POETA»*

# JUAN SAN MARTIN

*«CELAYA, UNA IMPRESION PERSONAL»*

**(MAHAI INGURUA - COLOQUIO)**

**Bernardo Atxaga.** Gaurregungo euskal literaturgile haundienetakoa dugu, eta hala onetsi da bere obra saritu izan den zenbait lehiaketatan. 1979an «Donostia Hiria» jaso zuen «Drink Dr. Pepper» narrazioaz, eta 1981ean «Irun Hiria Ipuin-Lehiaketa», «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena» izeneko lanaz. Erein Argitaletxeak bere «Etiopia» liburuaren edizio bat aurkeztu zuen ihaz Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azokan. Euskal Literaturako antologiarik garrantzitsuenetan ageri da, esate baterako «Euskal Literatura 72»-an. Atxagak antzerkiak idatzi ditu, nobelak ere bai («Ziutateaz» adibidez), eta literaturako unibertsaleko zenbait obra euskaratu ditu, «Robinson Crusoe» kasu. Haurrentzako fikziozko kreazio garrantzitsuak ere argitaratuak ditu, eta «Ustela», «Pott» eta, batipat, «Pott Tropikala» literatur aldizkarien bultzatzaile nagusienetakoa izan da. Donostiako «Susa» aldizkariak poeta honen obra literarioari buruzko ale monografiko bat egin zuen 1982an.

**Bernardo Atxaga.** Es uno de los mayores exponentes de la literatura vasca actual y su obra literaria ha sido reconocida con diversos premios. En 1979 recibió el «Ciudad de San Sebastián», con el relato «Drink Dr. Pepper» y 1981, el «Ciudad de Irún de Cuentos», con «Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena». La editorial «Erein» presentó en la Feria del Libro y Disco Vascos de Durango (1983) una reedición de su libro «Etiopía». Figura en las más importantes antologías de la literatura vasca, como «Euskal Literatura 72». Atxaga es autor de obras de teatro, de novelas, como «Ziutateaz» y ha realizado diversas versiones de la literatura universal al euskera, como la de «Robinson Crusoe». Ha publicado a su vez importantes creaciones de ficción para niños, y ha sido uno de los principales animadores de las revistas literarias «Ustela», «Pott» y, especialmente, «Pott Tropikala». La revista «Susa», editada en San Sebastián, dedicó en 1982 un monográfico a la obra literaria de este poeta.

**Carlos Aurtenetxe.** Poeta. Ipui-egilea. «Kantil» aldizkariaren kontseilukoa izan zen. «Donostia Hiria» saria 1978an bere «Los lemmings» ipuinaz, «Irun Hiria» saria «Pieza del Templo» poesia-lanaz (Donostia, GAK, 1983). «Blas de Otero» saria lortu zuen 1982an, argitaratzeke dagoen «Figuras en el friso» liburuaz, eta ihaz Eusko Jaurlaritzak ematen duen Poesia-Saria bereganatu zuen «Las edades de la noche» liburuagatik (argitaratu gabe). Argitaratutako bere lehenengo liburua, «Caja de silencio», 1979an azaldu zen (Donostia, Ediciones Vascas), poesia pluriforme baten adierazgarria da. Saiakera era landu du, eta idatzi duen azken liburuan («Sociedad vasca, cultura, futuro») egilearen kezketako bat laburtzen du.

**Felix Maraña.** Poeta. Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio-Zientzietan Lizentziatua, bere sormen poetikoaren atal bat argitalpen espezializatuetan garatu du. Donostian argitaratutako «Kurpil» eta «Kantil» literatur aldizkarietako argitarazle taldekoa zen. 1979an «Ataduras de noche y arena - Hondar eta gauezko loturak» poema-liburua argitaratu zuen (Haranburu Editor). Argitaletxe beronek euskal poesia gaztearen antologia argitaratu zuen 1980 urtean, Felix Marañak, Josu Landarekin lankidetzan, koordinatu eta hitzaurrea egin ziona, «Trotrorotroren Ipurdikoak - Anales de Trotronrotro» izenburupean. Laster emango dira argitara «Cultura, lenguaje, nación» saiakera eta «Los poemas de la verde azúcar» poema-liburua. Egun «El Diario Vasco» egunkarian idazten du.

**Juan San Martin.** Poeta, Euskaltzaina. Argitalpen espezializatu ezberdinetan eta egunkarietan euskal gaiei buruzko liburu ugari euskaraz nahiz erdaraz idatzi dituen idazlea. «Egan» aldizkariko idazlaritzako kidea, Espriu, B. Brecht eta M. Ghelderode-en obrak euskaratu dituena. «Ostalar» izenpean eman zuen argitara bere sormen poetikoaren atal handi bat. Bere liburuen artean «Juan Antonio Mogel, bere bizitza ta lanak»

**Carlos Aurtenetxe.** Poeta. Cuentista. Perteneció al consejo de la revista «Kantil». Premio «Ciudad de San Sebastián» con su cuento «Los lemmings» (1978), premio «Ciudad de Irún» de poesía con «Pieza del templo» (San Sebastián, CAP, 1983). En 1982 obtiene el premio «Blas de Otero», por un libro inédito titulado «Figuras en el friso», recibiendo en 1983 el Premio Nacional de Poesía que otorga el Gobierno Vasco por su libro «Las edades de la noche» (inédito). Su primer libro publicado, «Caja de silencio», muestra de una poesía pluriforme apareció en 1979 (San Sebastián, Ediciones Vascas). Ha cultivado el ensayo y su último libro escrito, «Sociedad vasca, cultura, futuro», resume alguna de las preocupaciones de su autor.

**Félix Maraña.** Poeta. Licenciado en Ciencias de la Información por la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, ha desarrollado parte de su creación literaria en publicaciones especializadas. Perteneció al equipo editor de las revistas «Kurpil» y «Kantil» de literatura, editadas en San Sebastián. En 1979 publicó un libro de poemas. *Ataduras de noche y arena - Hondar eta gauezko loturak* (Haranburu Editor). Esta misma editorial editó en 1980 una antología de la joven poesía vasca, coordinada y prologada por él mismo, en colaboración con Josu Landa, bajo el título «*Trotronrotrorem Ipurdikoak-Anales de Trotronrotro*». Próximamente verán la luz el ensayo «*Cultura, lenguaje, nación*» y el libro de poemas «*Los poemas de la verde azúcar*». Actualmente escribe en «El Diario Vasco».

**Juan San Martín.** Poeta, académico de Euskaltzaindia - Real Academia de la Lengua Vasca. Autor, tanto en euskera como en castellano de numerosos libros sobre temas vascos en diversas publicaciones especializadas y en la prensa diaria. Miembro de la redacción de la revista «Egan», ha traducido al euskera obra de Espriu, B. Brecht y M. Ghelderode. Con el seudónimo de «Ostalar» publicó buena parte de su creación poética. Entre sus publicaciones se encuentran «Juan Antonio Mogel, bere bizitza ta

(1959), «Zirikadak» (1960), «Eztenkadak» (1965), «Uhin berri» (1964-1969 Poesia berriaren bilduma) (1969), «Gogoz» (1978), «Literaturaren inguruan» (1980), «Erromanikoa Euskal Herrian» (1983), eta «Diccionario de Escritores Euskéricos» (1968) aipa daitezke eta bestelako gaiei buruzko argitarapenak.

**Tokia:**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JARGI-ARETOAN

**Ordua:** 19,30etan

lanak» (1959), «Zirikadak» (1960), «Eztenkadak» (1965), «Uhin berri» (1964-1969 Poesia berriaren bilduma) (1969), «Gogoz» (1978), «Literaturaren inguruan» (1980), «Erromanikoa Euskal Herrian» (1983), y el «Diccionario de Escritores Euskéricos» (1968) y otras publicaciones sobre temas varios.

**Lugar:**

SALON DEL TRONO DE LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

**Hora:** 19,30

## ABENDUAK 20 DICIEMBRE
## PRESENTACION DEL LIBRO DE POEMAS
# «TRILOGIA VASCA»
## OLERKI LIBURUAREN AURKEZPENA

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO JAUNA, DIPUTATU NAGUSIA, ETA IMANOL MURUA ARREGI, KULTUR DIPUTATU JAUNAREN LEHENDAKARITZAPEAN.

**Tokia:**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JARGI-ARETOAN.

**Ordua:** 19,30etan.

### OMENALDI-AFARIA

**Tokia:**

COFRADIA VASCA DE GASTRONOMIA.

**Ordua:** 21etan.

**Izenaematea:**

K.T.E. (Abenduaren 18 arte).

ACTO PRESIDIDO POR D. JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO, DIPUTADO GENERAL, Y D. IMANOL MURUA ARREGI, DIPUTADO FORAL DE CULTURA.

**Lugar:**

SALON DEL TRONO DE LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA.

**Hora:** 19,30.

### CENA-HOMENAJE

**Lugar:**

COFRADIA VASCA DE GASTRONOMIA.

**Hora:** 21.

**Inscripción:**

C.A.T. (hasta el 18 de diciembre, martes).

ABENDUAK 21 DICIEMBRE

# MARIA ASUNCION MATEO

*«GABRIEL CELAYA, CERCA DE LOS JOVENES»*

**María Asunción Mateo.** Hizkuntza eta Literaturako irakaslea da Valencian. Liburu bat argitaratu zaio iadanik, «Rafael Alberti para niños» (De la Torre, 1984) eta beste bi ditu bereala argitaratzekoak, Dámaso Alonso eta Gabriel Celaya gai hartuta. Horrez gain, oraindik argitaratu gabeko bi poema libururen egile da.

**Tokia:**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JARGI-ARETOAN

**Ordua:** 19,30etan

**María Asunción Mateo.** Profesora de Lengua y Literatura en Valencia. Ha publicado «Rafael Alberti para niños» (De la Torre, 1984) y tiene en prensa dos libros sobre Dámaso Alonso y Gabriel Celaya que se publicarán en breve. Es autora, también, de dos libros de poemas inéditos.

**Lugar:**

SALON DEL TRONO DE LA DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

**Hora:** 19,30

---

ABENDUAK 22 DICIEMBRE

# PACO IBAÑEZ
# IMANOL
# ANTTON VALVERDE

KANTALDIA / RECITAL

**Tokia:**

ANTZOKI ZAHARRA

**Ordua:** 22,30etan

**Lugar:**

TEATRO PRINCIPAL

**Hora:** 22,30

1.39. *Canto en lo mío* (comprende «Rapsodia éuskara» y «Baladas y decires vascos»), «El Bardo», Barcelona, 1968; 2.ª ed., Auñamendi, San Sebastián, 1973.
1.40. *Poesías completas,* Aguilar, Madrid, 1969.
1.41. *Lírica de cámara,* «El Bardo», Barcelona, 1969.
1.42. *Choix de textes* (precedidos de un estudio de Pierre Seirra), «Poètes d'aujourd'hui», Seghers, Paris, 1970.
1.43. *Operaciones poéticas,* «Visor», Madrid, 1971.
1.44. *Cien poemas de un amor* (una antología), Plaza y Janés, Barcelona, 1971.
1.45. *Campos semánticos,* Fuentedetodos, Zaragoza, 1971.
1.46. *Dirección prohibida* (comprende «Las resistencias del diamante», «Poemas tachados», «Episodios nacionales» y «Cantata en Cuba»), Losada, Buenos Aires, 1973.
1.47. *Función de Unos, Equis, Ene,* Fuentedetodos, Zaragoza, 1973.
1.48. *El derecho y el revés,* Ocnos, Barcelona, 1973.
1.49. *Canto en lo mío,* San Sebastián, Auñamendi, 1978.
1.50. *Las cartas boca arriba,* Madrid, Turner, 1974.
1.51. *La higa de Arbigorriya,* Madrid, Visor, 1975.
1.52. *Itinerario poético,* Madrid, Cátedra, 1975.
1.53. *Parte de guerra,* Barcelona, Laia, 1977.
1.54. *Buenos días, buenas noches,* Madrid, Hiperión, 1978.
1.55. *El libro rojo,* Madrid, Visor, 1979.
1.56. *Iberia sumergida,* Madrid, Hiperión, 1979.
1.57. *Poesía hoy,* Calpe, 1981.
1.58. *Penúltimos poemas,* Barcelona, Seix Barral, 1982.
1.59. *Cantos y mitos,* Madrid, Visor, 1984.
1.60. *Poesía,* Madrid, Alianza Editorial; 4.ª ed., 1984.
1.61. *Trilogía Vasca,* San Sebastián-Donostia, Diputación Foral, 1984.

## EN COLABORACION CON AMPARO GASTON

1.62. *Ciento volando,* Neblí, Madrid, 1953.
1.63. *Coser y cantar,* «Doña Endrina», Guadalajara, 1955.
1.64. *Música celestial,* Baladre, Cartagena, 1958.

## 2. NARRACION

2.1. *Tentativas,* «Adán», Madrid, 1946; 2.ª ed., Seix Barral, Barcelona, 1972.
2.2. *Lázaro calla,* S. G. E. de L., Madrid, 1949.
2.3. *Penúltimas tentativas,* Ariel, Madrid, 1960.
2.4. *Lo uno y lo otro,* Seix Barral, Barcelona, 1962.
2.5. *Los buenos negocios,* Seix Barral, Barcelona, 1965.

## 3. TEATRO

3.1. *El relevo,* Gora, San Sebastián, 1963; 2.ª ed., Escelicer, Madrid, 1972.

## 4. ENSAYO

4.1. *El arte como lenguaje,* «Ediciones de Conferencias y Ensayos», Bilbao, 1851.
4.2. *Poesía y verdad,* Huguin, Pontevedra, 1960.
4.3. *Exploración de la poesía,* Seix Barral, Barcelona, 1964; 2.ª ed., Seix Barral, Barcelona, 1971.
4.4. *Castilla, a cultural reader* (en colaboración con Phyllis Turnbull), «Appleton-Century-Crofts», Nueva York, 1970.
4.5. *Inquisición de la poesía,* Taurus, Madrid, 1972.
4.6. *La voz de los niños,* «Laia», Barcelona, 1972.
4.7. *Bécquer,* «Júcar», Madrid, 1972.
4.8. *Los espacios de Chillida,* «Polígrafa», Barcelona, 1974.

# GOGOETAK CELAYA-Z
# SOBRE CELAYA

## GABRIEL CELAYA, TEORIA DEL ABRAZO

Inolvidable huésped su pleamar en nosotros.

En Gabriel Celaya es contagioso el ser. Contagia la realidad. En el inicio nada es más de agradecer en un hombre. Pero hay más. Más tarde nos contagia su empeño en superar aquella realidad, porque siendo él también el mundo, como él sabe tan bien, es lo mejor de él, lo que quiere superarlo, lo que ya lo ha superado al ser, al comprender, al amar a pesar de todo y contra todo.

En esta época en que las ciencias más al uso se aprovechan con la mayor eficacia de la realidad tal como es—tal es la derecha de las cosas, eso sí, en nombre del espíritu, como es siempre en la derecha de las cosas—en lugar de tratar de revolucionarla, de mejorarla, como es la locura del dolor de la izquierda de las cosas, quede aquí expresado el respeto y homenaje a uno de los que más significativamente ha batallado, batalla y germinará del buen lado de la cosas: el más corto, el más veraz, el que menos de este mundo es por desgracia, y más debiera, y más dice ser, a diferencia de los que tanto afirman lo opuesto y son lo opuesto.

Se le ve en dura pugna, atado a la marea de su pecho, de su frente.

La consciencia es dolor. Una consciencia gozosa o es fruto de un olvido, ya amputación de la consciencia, o es cruel, injusta, detestable. Aunque habite mi pecho, y la comprenda. Hablo de consciencia ética. Tal es Gabriel Celaya. Un nivel de consciencia ética.

Y un hombre vasco. El caminante del atajo. Sus títulos lo explican: «Las cosas como son». «Las cartas boca arriba». «De claro en claro». «El corazón en su sitio». «Lo demás es silencio».

Cuando se sigue la lógica, o sea la danza, de los cuerpos opacos todo aparece regido por el principio de la impenetrabilidad y la interferencia, la intransigencia de los sistemas, la ley de los imposibles, y nada hará pensar que casi todo allí es vacío, y que si no se entrecruzan los cuerpos es porque son órdenes opuestos e inaptos a la mutua comunicación, peones de una vasta matanza.

Entre los cuerpos translúcidos, y más tarde entre los transparentes, aún es imposible la penetrabilidad mutua, pero ya les va dominando la luz, nace una posible visión a través de sus corazones. Más allá de la física de los sólidos, ya en los fluídos, se distancia el baile de las partículas, aparece una mayor respiración, resbala el mundo. Allí, al fondo de la noche, un pequeño ser acaso nos vigila, nos coge de la mano, y nos lleva con él y nos sonríe. Nos soñamos. Y al final, felizmente, somos aún menores que él, y jugamos así a lo mismo. Cuando despertamos sabemos que ese ser es Gabriel Celaya. Y que aún dentro de esa ineludible e inmensa pobreza y desnudez que es la nuestra nos sentimos mejor, nos sentimos mucho mejor, nos sentimos inexplicablemente mejor, en medio de la noche.

Y es que Gabriel Celaya es contagioso. Y corpóreo. La tierra accede en él a la corporeidad del sentimiento. Es el sencillo y memorable fruto que nuestra soledad merece.

Soñaremos que el silencio de las esferas es música de las esferas. Pero sabremos que las esferas están calladas. Y que el soñar cosas mejores que las reales es una labor heroica, un trabajo infinito que puebla los caminos. Y que eso no es sólo palabras, porque si sólo fuera palabras no significaría nada, sino que es poesía, conmoción, porque esas palabras sabemos, sentimos que nos dicen la verdad. ¿Qué poder tendría la palabra tristeza sobre nosotros si no hubiéramos estado nunca tristes?

Cuando oyes su voz en nuestras calles viejas, en nuestro mar antiguo, en la eterna conversación imparable, en la profunda lluvia de lo nuestro, en las horas difíciles, Gabriel Celaya está con nosotros para siempre. El sabe que nos habita allí donde los demás ya no supieron seguir a nuestro lado.

Gabriel Celaya es, se llama, esta teoría del abrazo.

**CARLOS AURTENETXE**

## POESIA SOZIALA ETA GABRIEL ZELAIA

Poesía Sozialaren izenpean, benetako poesia sozialarekin zerikusi gutxi duten zenbait adierazpen poetiko ezberdin bildu ohi da nahasi-mahasian. Esate baterako literatura politikoa edota lekukotasun-literatura. Poesia soziala, izan ere, politika eta lekukotasunaren mugak hautsi eta sinboloaren eta alegoriaren adore zabal eta bizien barrena abiatzen denean bihurtzen baita egiazko poesia eta benetako espresio-artea.

Poesia sozialak, izen eta adierazpen poetiko hau desitxuratu eta pobretu nahi izan duten morrontzak eta oskurantismoak gaindituz, egiazko konposizio alegorikoa osatzen du, gai nagusia gizakia duen konposizioa; giza-parametro honen ardatza, gainera, izaki historikoaren liberazio kolektiboa da.

Oinarri hauek gogoan hartzen baditugu, beraz, aisa ulertuko dugu poesia sozialaren izaera gizazale eta utopikoa. Eorkizunera proiektatzen den poesia da, eta ezaugarririk nabarmenetako bat bere idealismo sumina du. Oraina bitartekoa da beti, inoiz ez helburua, «erlijio berri» honen poeta-profetak historiazgaindiko geroa eskuratzeko ezagupide eta aurrerapide gisa aurkeztu behar baitu orainaldi historikoa. Honela, literatura sozialaren gaitegian politika edo testigantza-erako adieraziak sar daitezke, baina gorputz alegoriko horren zati gisara. Ez dute, hortaz, esanahi autoktonorik, signifikazioaren ardatz nagusi horren—lerro hauetan «geroaldi suprahistorikoko giza-salbazio» deitu dugunaren—menpean daudenez.

Adierazi sozialak, beraz, ikasgai didaktikoak dira eta destinatari jakin eta zehatza dute: gizateria. Pertsonaia poetikoa, honela, destinatari hipotetikoarekin identifikatzen da. Honek argitzen du bere adierazpenaren izatasuna. Alde batetik, poesia epikoari dagozkion bereizgarriak hartzen ditu, kolektibitateak protagonista eta destinatari legez jokatzen duenez gero. Bestaldetik, adierazpide dramatikoa hartzen du, edukiek ekintzaren eragile izan behar dutenez.

Adierazpen eta adierazi-kategoria hauek osatzen dute poesia sozialaren egiazko nortasuna. Poesi joera hau gehien eta ondoen landu dutenetako bat Gabriel Zelaia dugu, hain zuzen. Korronte honen barruan eginak dituen liburuetatik errepresentatiboena «Cantos Iberos» dugu. Bertan poesia sozialaren izatea zehazten duten adierazpen-oinarriak eta adieraziak maisutasunez batu eta uztartzen ditu.

**JOSE ANGEL ASCUNCE ARRIETA**

# LA POESIA SOCIAL Y GABRIEL CELAYA

Bajo el término de Poesía Social se agrupan como en verdadero baúl de sastre toda una serie de distintas manifestaciones poético-literarias que nada o muy poco tienen que ver con la verdadera Poesía Social. Pongo por caso la literatura política o la literatura de testimonio. La Poesía Social es auténtica poesía y verdadero arte de expresión, cuando precisamente consigue romper los límites de lo político y del testimonio y se lanza a las auras siempre abiertas y vivas del símbolo y de la alegoría.

La poesía social, superando los servillismos y el oscurantismo con los que se ha querido distorsionar o empobrecer dicho término y dicha manifestación poética, conforma una verdadera composición alegórica, cuyo tema central es el hombre; y dentro de este parámetro humano, su auténtica temática es la redención colectiva del ser histórico.

Si se tienen presentes estas premisas, se comprende fácilmente el carácter humanista y utópico de la Poesía Social. Es una poesía que se proyecta al futuro, siendo uno de los rasgos más sobresalientes su exacerbado idealismo. El presente sirve como medio y nunca como fin, ya que el poeta-profeta de esta «nueva religión» tiene que presentar el ahora histórico como medio de conocimiento y superación para lograr el futuro suprahistórico. De esta manera, en la temática de carácter social pueden entrar a formar parte expresados de tipo político o de tipo testimonial, pero éstos funcionan simplemente como partes del organismo alegórico. Es decir, no poseen significación autóctona, sino que se subordinan a ese eje central de significación, denominado en estas líneas como «salvación humana en el futuro suprahistórico».

Los expresados sociales son, por tanto, una lección didáctica dirigida a unos destinatarios concretos y específicos: la colectividad humana. El personaje poético se identifica de esta manera con el destinatario hipotético. Este dato explica la naturaleza de su expresión. Por una parte, adquiere rasgos típicos de la poesía épica, en cuanto la colectividad se comporta como protagonista y destinatario de la misma. Por otro lado, asume una forma expresiva específicamente dramática, en cuanto los contenidos tienen que funcionar como revulsivo de acción.

Estas categorías de expresión y expresados conforman la verdadera identidad de la Poesía Social. Uno de los más y mejores cultivadores de esta tendencia poética es precisamente Gabriel Celaya, quien en su obra «Cantos Iberos», el libro más representativo entre toda su producción de esta línea poética, conjuga y amalgama felizmente los principios de expresión y los expresados que determinan el ser y el estar de la poesía social.

**JOSE ANGEL ASCUNCE ARRIETA**

# BESTE GABRIEL ZELAIA BAT?

**(Kontaketa-hizlauari dagokionez)**

Gabriel Zelaia kontatzaileaz hitzegitea ez du esan nahi, ezta une txikienez ere, poeta ahaztea. Zelaia beti baita poeta: ez bakarrik poesia idazten duenean, baizik eta poesiari buruz idazten edota zerbait kontatzen duenean ere. Zelaia poeta idazten duen bakoitzean da, hitz baten esanda, beti.

Gertatzen dena hauxe da: Gabriel Zelaiaren poesiaren kalitate eta esanahi apartek kritikarien aditasuna desbideratu egin dutela eta ziurraski bestelako testu ez poetikoak eta bereziki narrazioak, irakurtzen dituzten irakurleena ere, zeren testu narratibo hauek lirikoen garrantzirik eta baliorik ez eukiarren, ezinbesteko bait dira Gabriel Zelaiak duen idazle kautuaren—edo totalaren esan beharko litzateke?—irudi sendo hori berreraiki eta ulertzeko.

Saiakerak, *Poesía y Verdad* liburutik hasita *Bécquer* libururaino, poesilan hertsi eta autoerreflexibo orbitan, nabari denez, sartzen badira, eta testu dramatikoa, *El Relevo,* saio bakana bada, ez duelako hortik jo, testu narratiboak geratzen dira—sei tituludun sorta sendoa—, 1946ko *Tentativa* eta 1980ko *Memorias inmemoriales* liburuen tartean, idatz esperientzia interesgarri eta aldi berean harrigarri gisa, ez bait du ematen idazlearen sistema espezifikoki poetikoan, koherentzia osoz, sar daitezkeenik. Seguraski, Gabriel Zelaiaren baitan dagoen poeta izugarria narratzaileari joku txar bat egiten ari zaio, baina ez horregatik interes gutxiagokoa, Zelaiaren baitan aurkitzen dena ere.

Zelaiaren narrazio-obra ahazte batetatik ateratzeko saio apal hau ez zaio begirune-zeinuari konbentzimenduarenari baino gehiago zor, hein batetan behartua orain bezala herritarren omenaldia eskaintzerakoan.

Ez dugu nahi ezta ere, zehaztasunez basino borondate onez gehiago, Zelaiaren prosa bere poesiaren literatur gailurrera aupatzea.

Nik uste dut, benetan, Gabriel Zelaiaren obra narratiboak nobela espainolaren histori-gileak orohar eskaintzen ari zaizkion jaramon eta zabalera baino gehiago merezi duela.

Nire eritziz, Gabriel Zelaia kontalariaren irudia ez da hainbeste egungo narratibaren sisteman erreibindikatu behar, baizik eta bere literatur obraren barnean, bere poesiarekin eta ez aurka. Azken finean ez du sentidu handirik Zelaia nobelista baino poeta hobea dela esateak, egia dena, bestalde, poeta eta kontatzaile ez bait dira kontrako edo kontrajartzen. Ez litzateke adierazgarriegia ere izango elkar osotu egiten direla esatea.

Narrazioak, saiakerak bezala, idazkera-humus hori osatzen du Gabriel Zelaiarengan, non poeta gainean agertzen den, egin eta berrigiten, eta poeta izaten darraikion.

Zelaiaren hizlauko lehen liburua, *Tentativas,* Montaigneren hitz hauez irekitzen da: «Ez dut egin nire liburua, nire liburuak ni egin nauen bezainbat».

Izan ere, liburua da idazkeraren gunea, eremua non idazleak, lengoaiaka, bere buruarekin eta munduarekin dabilen borroka dramatikoari ematen dion bide; Idazterakoan jaiotzeko, literatur hitzaz, iraganaren dentsitate metatu hori perforatzeko eta zentzuaren azken gerizak aurkitzeko, edota, Zelaiak berak aitortzen duen bezala «kaosa garden bihurtu, anabasa organizatu».

Oroimena, poetaren eskutan, ez baita ispilu bat, baizik eta sormen-mekanismoa, izakia denboran eta patuan finkatzeko, behin nia traszendituz irudi arkeotipikoen sistema batean.

Honela 1946an hasitako saila sortzen da *Tentativas* liburuarekin eta, oraingoz, 1980an idatzitako *Memorias Inmemoriales* obrarekin bukatzen. Tartean, 1960ko *Penúltimas tentativas* geratzen da, eta etorkizunerako «Suplementos Autobiográficos» liburuaren promesa, liburu horretan, idazleak, hirurogeita hamar urte pasata, autobiografikoa «agure berriketa» bihurtzeko arriskua gainditu nahi bait du.

Propioki deitutako nobelak—*Lázaro calla* (1949), *Lo uno y lo otro* (1962) eta *Los buenos negocios* (1965), azkar eta arinegi «nobela sozial» izenekora atxeriak—, *Tentativas* liburuarekin hasten diren aurresuposamendu formal eta tematikoak ez dira ukatzen, nahiz eta orbita horretan ere ez ibili.

Hizlaua eta narrazioa, funtsean, Gabriel Zelaiak sortzen duen hitz mugagabe horren beste era bat dira eta non, poesiaren paradoxa, aldi berean birsortua baita.

**Jesús María LASAGABASTER**

## ¿OTRO GABRIEL CELAYA?

**(A propósito de la prosa narrativa)**

Hablar de Gabriel Celaya narrador no quiere decir olvidar, ni siquiera momentáneamente, al poeta. Porque Celaya es poeta siempre: no sólo cuando escribe poesía, sino también cuando escribe sobre poesía, o cuando narra. Es poeta, sencillamente, cuando escribe, es decir, siempre.

Lo que pasa es que la calidad y la significación excepcionales de la poesía de Gabriel Celaya ha desviado la atención de críticos y seguramente también de lectores de otros textos no poéticos, y en concreto de los narrativos, que sin tener ni la importancia ni la validez de los textos líricos, son indispensables para reconstruir y entender esa recia figura de escritor cabal—¿o habría que decir total?—que es Gabriel Celaya.

Si los libros de ensayo, desde *Poesía y verdad* hasta *Bécquer,* se sitúan, como parece evidente, en la órbita de un trabajo poético riguroso y autorreflexivo, y el texto dramático *El relevo* es un intento aislado por no repetido, quedan los textos narrativos—un sólido conjunto de seis títulos—, entre *Tentativas* de 1946 y *Memorias inmemoriales,* de 1980—, como una experiencia escritural interesante y al mismo tiempo sorprendente, porque no parece encajar con demasiada coherencia en el sistema específicamente poético del escritor. Seguramente, el descomunal poeta que hay en Gabriel Celaya le está jugando una mala pasada al narrador, común, pero no por ello menos interesante, que también hay en Celaya.

Este modesto intento de rescatar de un cierto olvido la prosa narrativa de Celaya no es un gesto, más de cortesía que de convencimiento, obligado en cierto modo en una ocasión como ésta del homenaje de los paisanos.

Tampoco se trata de pretender, con más buena voluntad que rigor, aupar la prosa de Celaya a la cima literaria de su poesía.

Yo creo sinceramente que la obra narrativa de Gabriel Celaya merece más atención y más espacio que los que los historiadores de la novela española en general le vienen dedicando.

Pero a mi juicio no es tanto en el sistema de la narrativa actual donde debe ser reivindicada la figura de Gabriel Celaya narrador, sino en el interior mismo de su obra literaria, con su poesía y no frente a ella. En definitiva, no tiene demasiado sentido decir que Celaya es mejor poeta que novelista, lo cual, por otra parte, es verdad, porque poeta y narrador no se enfrentan o contraponen. Tampoco sería demasiado explicativo, por socorrido, decir que se complementan.

La prosa narrativa, como el ensayo, forma en Gabriel Celaya ese humus de escritura en el que emerge, se hace y se rehace, y sigue existiendo el poeta.

El primer libro de prosa de Celaya, *Tentativas,* se abre con estas palabras de Montaigne: «No tanto he hecho mi libro, como mi libro me ha hecho a mí».

Efectivamente, es el libro, el espacio de la escritura, el campo donde el escritor entabla, a lenguaje limpio, esa lucha agonal consigo mismo y con el mundo; para nacerse en el acto de escribir, para perforar, con la palabra literaria, esa acumulada densidad de lo pasado y descubrir las vetas últimas del sentido, o, como el propio Celaya confiesa, «tornar transparente el caos, organizar el desorden».

Porque la memoria, en manos del poeta, no es un espejo, sino un mecanismo de creación, en que asentar, trascendido el yo en un sistema de figuras arquetípticas, el ser en el tiempo y el destino.

Así nace la serie que comienza en 1946 con *Tentativas* y se cierra, por el momento, en 1980, con *Memorias inmemoriables.* Entre medio, queda *Penúltimas tentativas,* de 1960, y para el futuro la promesa de unos «Suplementos Autobiográficos», que el escritor pretende salvar de ese riesgo, pasados los setenta, de convertir lo autobiográfico en «cháchara senil».

Las novelas propiamente dichas—*Lázaro calla* (1949), *Lo uno y lo otro* (1962) y *Los buenos negocios* (1965), adscritas un poco apresurada y frívolamente a la llamada «novela social»—no niegan los presupuestos formales y temáticos que se inician con *Tentativas,* aunque no giren tampoco en su órbita.

Prosa y narración son, en suma, otra forma de esa infinita palabra que Gabriel Celaya crea y en la que, paradojas de la poesía, es al mismo tiempo recreado.

**Jesús María LASAGABASTER**

Ind. Gráf. Valverde, S. A. - D. L.: S. S. - 701 - 84